

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, GARBITANIA ZERO ZABOR, SL 2011 FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Garbitania Zero Zabor, SLren 2011ko ekitaldiari dagokion kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute.

Txostenak kontularitza eta legezketasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu eta sozietatearen kudeaketa hobetzeko gomendioak egiten.

Legea betetzeari dagokionez, HKEEren iritzira, sozietateak 2011ko ekitaldian zehar jarduera ekonomiko finantzazkoa indarreko araudiari jarraiki gauzatu du, txostenean bertan jaso diren hainbat akats salbuetsita.

Bada, kontratazioaren atalean HKEEk azpimarratu du Sozietateak ez duela kontratazio prozedurak arautuko dituen jarraibiderik eta 2011ko azarora arte ere ez du kontratugilearen profilik ere izan.

Langileen atalari dagokionez, HKEEk jakinarazi du Garbitaniak lan kontratu mugagabeak izenpetu dituela aldi baterako izaerarekin -2 urte- hautatu eta kontratatu ziren 29 langilerekin, epe hori iragan ostean. Aldi baterako lan harremana kontratu mugagabe bihurtzeko aukera deialdietako oinarri-arauetan aurreikusi behar zatekeen.

Fundazioaren urteko kontuei dagokienez, HKEEk uste du alderdi esanguratsu guztietan 2011ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zehatza erakusten dutela.

Halaber, HKEEk barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu, kontabilitate, langileria eta kontratazio ataletan.